

C.I.E.-9

La codificación de los diagnósticos y procedimientos se realiza en cada hospital de forma centralizada por codificadores especializados, siguiendo la Clasificación Internacional de Enfermedades 9ª revisión Modificación Clínica (CIE-9-MC), última edición en castellano.

eu GNS-9

Diagnostikoak eta prozedurak modu zentralizatuan kodetzen dira ospitale bakoitzean; kodetzaile espezializatuek egiten dute lan hori, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 9. berrikuspenari jarraituz (GNS-9-AK, Aldaketa Klinikoa) (gaztelaniazko azken argitaraldia).
- Abisua pasa: badagoela beste bertsio berriago bat, bai euskeraz eta bai gaztelaniaz.

in C.I.E.-9

The codification of diagnosis and procedures is carried out in each hospital in a centralised way using specialised classifiers, in accordance with the International Classification of Illnesses 9th revision - Clinical Modification (CIE-9-MC), latest edition in Spanish.

cadena de Markov

eu Markov-en kate

in Markov chain

cadena finita

eu kate finitu

in finite chain

cadena recurrente

eu kate errepikari

in recurrent chain

cálculo de probabilidades

eu probabilitate-kalkulu

in probability calculation

Calidad sanitaria de las aguas de baño en las playas

Los criterios de calidad mínima exigibles a las aguas de baño se establecen en la Directiva del Consejo 76/160/CEE (8-X-75) y en el Real Decreto 734/1988 (I-VII-88). En ellos se designan, tanto para los parámetros microbiológicos como para los físico-químicos, una serie de valores de carácter imperativo (de obligado cumplimiento) y unos valores guía, cuya consecución sería un objetivo de la acción sanitaria.

- A partir de estos valores se establecen tres tipos de calificaciones para las playas:
- Playas de tipo 2. Cumplen los valores imperativos y los valores guía para los diferentes parámetros.
- Playas de tipo 1 . Cumplen los valores imperativos, pero no los valores guía.
- Playas de tipo 0. No cumplen los valores imperativos.

eu Hondartzetako uraren kalitate sanitarioa

Kontseiluaren 76/160/CEE Zuzentarauan (75-X-8) eta 734/1988 Errege Dekretuan (88-VII-I) ezartzen dira bainatzeko urak izan behar dituen gutxieneko kalitatearen irizpideak. Arau horietan ezartzen dira, bai parametro mikrobiologikoei eta bai parametro zientifiko-kimikoei dagokienez, aginduzko balio batzuk (nahitaez bete behar direnak) eta beste balio gidari batzuk. Eta ekintza sanitarioaren lortu beharreko helburuen artean sartzen dira haiek denak.

- Balio horietan oinarriturik, hiru taldetan sailkatzen dira hondartza guztiak:
- 2. motako hondartzak: aginduzko balioak eta balio gidariak betetzen dituzte, parametro guztietan.
- 1. motako hondartzak: aginduzko balioak betetzen dituzten, baina balio gidariak ez.
- 0. motako hondartzak: aginduzko balioak ere ez dituzte betetzen.

in Sanitary quality of beach bathing water

The criteria of minimum required quality for bathing water is set by Council Directive 76/160/EEC (8-X-75) and Royal Decree 734/1988 (I-VII-88). They designate the microbiological as well as the physical-chemical parameters, a series of mandatory values (compulsory) and some guideline values, whose fulfilment is a health action objective. Based on these values three types of classifications are established for beaches:

- Type 2 beaches, which comply with the mandatory and guideline values for the different parameters.
- Type 1 beaches, which comply with the mandatory values, but not the guideline values.
- Type 0 beaches, which do not comply with the mandatory values.

camino crítico

eu bide kritiko

in critical path

campana de Gauss

eu Gauss-en kanpai

in Gaussian curve

cantidad de información

eu informazio-kantitate

in amount of information

cantidad despreciable

eu kantitate baztergarri

in negligible quantity

Capítulo arancelario

97 capítulos; son desagregaciones de las secciones y se hallan identificados por los dos primeros dígitos del TARIC.

eu Arantzel*

97 kapitulu; sekzioen desagregazio dira, eta TARICeko lehenengo bi digituekin identifikatzen dira.

in Tariff Chapter

There are 97 chapters, which are breakdowns of the sections and are identified by the first two TARIC digits.

característica cualitativa

eu ezaugarri kualitatibo

in qualitative characteristic

característica cuantitativa

eu ezaugarri kuantitatibo

in quantitative characteristic

caracterización de una distribución

eu banaketaren karakterizazio

in distribution characterization

Cash Flow

Cantidad que recoge el Resultado antes de impuestos más las Dotaciones para amortizaciones y corresponde al flujo de caja generado en el ejercicio.

eu Cash flow-a

Zerga aurreko emaitza gehi amortizazioetarako zuzkidurak jasotzen dituen zenbatekoa. Ekitaldian sortu den kutzako fluxuari dagokio.

in Cash Flow

Covers the Result, before taxes plus the Provisions for amortisation and corresponds to the cash flow generated during the tax period.

caso favorable

eu aldeko kasu

in successful outcome

caso no favorable

eu kontrako kasu

in unsuccessful outcome

caso posible

eu kasu gertagarri

in possible outcome

caso registrado

eu erregistraturiko kasu

in registered outcome

Castellanófonos

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el castellano u otra distinta del euskera y que no lo hablan nada y no lo entienden ni lo leen "bien".

eu Erdaldunak

Ama-hizkuntza gaztelania -edo euskara ez den beste hizkuntza bat- izan, eta euskaraz hitz egiten ez dutenak eta "ondo" ulertzen eta irakurtzen ez dutenak.

in Spanish speakers

Those persons whose mother tongue is Spanish or another language except Basque and who do not speak Basque at all and neither understand nor read it "well".

causa aleatoria

eu ausazko kausa

in chance cause

censo

eu zentsu

in census

Censo electoral

Registro que contiene la inscripción de los electores. Está compuesto por el censo de electores residentes en España y por el censo de electores residentes ausentes que viven en el extranjero.

- En las elecciones al Parlamento Europeo, el censo electoral comprende a los ciudadanos nacionales de la Unión Europea con residencia en el estado español.

- En las elecciones municipales, el censo electoral incluye a extranjeros residentes en el estado español pertenecientes a países con acuerdo de reciprocidad en materia de derecho de sufragio activo.

- El censo electoral es permanente y su actualización es mensual. Para cada elección el censo electoral vigente será el cerrado el día primero del mes anterior al de la fecha de la convocatoria.

eu Hautesle-errola

Hautesle guztien inskripzioa jasotzen duen erregistroa. Espainian bizi diren hautesleen erroldaz eta atzerrian bizi diren hautesle egoiliar absenteen erroldaz osatzen da.

- Europako Parlamenturako hauteskundeetan, Europar Batasuneko nazionalitatea izanik estatu espainolean bizi diren herritarrak hartzen ditu hautesle-erroldak.

- Udal-hauteskundeetan, estatu espainolean bizi diren atzerritarrak sartzen dira hautesle-erroldan, baldin eta botoa emateko eskubideari buruzko elkarrekikotasun-hitzarmena duten estatuetako herritarrak badira.

- Hautesle-erroldak ez du epemugarik, iraunkorra izaten da, eta hilean behin eguneratzen da. Hauteskunde bakoitzean, hauteskunde-deialdia egin aurreko hilabetearen lehenengo egunean itxiko da indarrean geratuko den hautesle-zerrenda.

in Electoral register

Contains the electoral register. It is made up of the register of electors resident in Spain and the register of absent resident electors who live abroad. In elections to the European Parliament, the electoral register includes citizens who are nationals of the European Union and are resident in the Spanish state. In municipal elections, the electoral register includes foreigners resident in the Spanish state who come from countries with reciprocal agreements on the subject of law on active suffrage. The electoral register is permanent and it is updated monthly. For each election the current electoral register will be closed the first day of the month before the date of the election called.

centil

centila

eu zentil

in centile

certidumbre

eu ziurtasun

in certainty

Circunscripción electoral

Unidad territorial que sirve de base para la distribución de los escaños de representación y donde a su vez se verifica la elección. En las elecciones legislativas es la provincia, mientras que en las municipales es el término municipal correspondiente.

eu Hauteskunde-barruti

Ordezkarri-aulkien banaketa egiteko oinarritzat hartzen den lurralde-unitatea, aldi berean hautapena egiaztatzeko ere izaten dena. Legegintzako hauteskundeetan probintzia izaten da; udal-hauteskundeetan, berriz, lekuan lekuko udal-mugapea.

in Electoral district

Is the territorial unit which acts as a basis for the distribution of seats of representation and where the election is verified. In legislative elections this is the province, while for municipal elections it is the corresponding municipal area.

clasificación automática

eu sailkapen automatiko

in automatic classification

clasificación jerárquica

eu sailkapen hierarkiko

in hierarchical classification

clasificación jerárquica ascendente

eu goranzko sailkapen hierarkiko

in ascendent hierarchical classification

clasificación jerárquica descendente

eu beheranzko sailkapen hierarkiko
in descending hierarchical classification

clasificación múltiple

eu sailkapen anizkoitz
in multiple classification

clasificación simple

eu sailkapen simple
in simple classification

CNAE-93

Clasificación Nacional de Actividades Económicas.

eu EJSN-93
Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala.
in CNAE-93
National Classification of Economic Activities.

cobertura

eu hedadura
in coverage

codificación

eu kodifikazio
in coding

codificación difusa

eu kodeketa lauso
in fuzzy coding

codificación disyuntiva completa

eu kodeketa disjuntibo osatu
in complete disjunctive coding

coeficiente de aplastamiento

coeficiente de curtosis

kurtosis

curtosis

eu kurtosi koefiziente
in kurtosis

coeficiente de asimetría

eu asimetria-koefiziente
in coefficient of skewness

coeficiente de autocorrelación

eu autokorrelazio-koefiziente

in autocorrelation coefficient

coeficiente de concentración

eu kontzentrazio-koefiziente

in coefficient of concentration

coeficiente de concordancia

eu komunztadura-koefiziente

in coefficient of concordance

coeficiente de contingencia

eu kontingentzia-koefiziente

in coefficient of contingency

coeficiente de correlación

eu korrelazio-koefiziente

in correlation coefficient

coeficiente de correlación de Pearson

eu Pearson-en korrelazio-koefiziente

in Pearson coefficient of correlation

coeficiente de correlación múltiple

eu korrelazio anizkoitzaren koefiziente

in multiple correlation coefficient

coeficiente de correlación parcial

eu korrelazio partzialaren koefiziente

in coefficient of partial correlation

coeficiente de correlación phi

eu phi korrelazio-koefiziente

in phi-coefficient

coeficiente de determinación

eu determinazio-koefiziente

in coefficient of determination

coeficiente de expansión

eu hedapen-koefiziente

in coefficient of expansion

coeficiente de fiabilidad

eu fidagarritasun-koefiziente

in reliability coefficient

Coeficiente de ocupación

Dentro de un grupo, proporción de miembros del mismo que se encuentra ocupado. Suele expresarse en porcentajes. En el CMT está calculada sobre la población de 16 a 64 años (edad cumplida).

eu Okupazio-koefiziente

Talde batean, enplegua duten taldekideen proportzioa. Ehunekotan adierazi ohi da. LMZn, 16-64 urteko biztanleria hartzen da kontuan kalkulua egiteko (betetako adina).

in Employment coefficient

The employment coefficient is the ratio of a group to the proportion of members of the group that are employed. This is usually expressed in percentages. In the CMT the calculation is on the population aged 16 to 64.

coeficiente de Pearson

eu Pearson-en koefiziente

in Pearson's coefficient

coeficiente de regresión

eu erregresio-koefiziente

in regression coefficient

coeficiente de variación

eu aldakuntza-koefiziente

in coefficient of variation

Cohabitación

Situación de convivencia marital estable de una pareja sin vínculos matrimoniales legales. Esta situación es independiente del estado civil legal de cada uno de los miembros de la pareja.

eu Bizikidetzta

Legezko ezkontza-loturarik izan gabe, ezkondu-bizitza iraunkorra duen bikotea. Egoera horretan ez da kontuan hartzen bikotekide bakoitzaren legezko egoera zibila, edozein dela ere.

in Cohabitation

This describes the situation of stable common-law spouses who are not legally married. This situation disregards the legal marital status of either of the partners involved.

Colocaciones

Bajas de ofertas de puestos de trabajo producidas por colocaciones de demandantes.

- Colocaciones correspondientes a ofertas nominadas: son las bajas de puestos de trabajo con especificación nominal de los trabajadores que han de ocuparlos. Las colocaciones nominadas y las ofertas nominadas, por consiguiente, coinciden.

- Colocaciones correspondientes a ofertas genéricas: son las bajas de puestos de trabajo en las cuales no figura dicha especificación nominal.

eu Enplegatzeak

Hainbat enplegu-eskatzailek lana aurkitzen dutenean lanpostuen eskaintzan sortzen diren bajak.

- Eskaintza izendatuei dagozkien enplegatzeak: lana hartu behar duen langilearen izena zehaztuz eskaintzen diren lanpostuak bete izanagatik sortzen diren bajak. Bat datoz, beraz, enplegu-hartze izendatuak eta eskaintza izendatuak.

- Eskaintza generikoei dagozkien enplegatzeak: izen-zehaztapenik egin gabe eskaintzen diren lanpostuak bete izanagatik sortzen diren

bajak.

in Placements

These are cancellations of job offers as a result of request placements. Placements corresponding to nominated offers: Cancellations of employment posts with a nominal specification of the workers who are to occupy the posts. Nominated placements and offers, therefore, coincide. Placements corresponding to generic job offers: Cancellations of employment posts in which there is no such nominal specification.

combinaciones con repetición

eu errepikatuzko konbinazioak

in combinations with repetitions

combinaciones sin repetición

eu errepikatu gabeko konbinazioak

in combinations without repetition

combinatoria

eu konbinatoria

in combinatoriy

comparación de medias

eu batez bestekoen alderaketa

in mean comparison

componente aleatorio

eu ausazko osagai

in random component

componentes de varianza

eu bariantza-osagaiak

in components of variance

concentración

eu kontzentrazio

in concentration

Conciliaciones

Intentos obligatorios de avenencia entre los intereses en conflicto de los trabajadores y las empresas en materia derivada del contrato de trabajo. Están encaminadas a obtener un acuerdo libre y pactado de los interesados y a evitar demandas ante los Juzgados de lo Social.

- La conciliación puede ser individual o colectiva.
- Los actos de conciliación terminados comprenden los siguientes tipos de resolución:
- Con avenencia. Cuando existe acuerdo entre las partes,
- Sin avenencia. Cuando no existe acuerdo entre las partes.
- Intentadas sin efecto. Cuando no comparecen la parte o partes demandadas.

eu Adiskidetzeak

Langileen eta enpresen artean lan-kontratuaren inguruko gaietan sortzen diren interes-gatazkak adosteko ezinbestez egin behar diren abeniko-saioak. Interesatuena artean akordio libre eta adostua lortzea izaten da haien helburua, eta lan-arloko epaitegiaren aurrean demandarik jartzeko biderik ez ematea.

- Indibiduala edo kolektiboa izan liteke adiskidetzea.
- Ebazpen-mota hauetakoren batekin amaitzen dira adiskidetze-ekintzak:

- Abenikoa: alderdien arteko adostasuna lortzen denean.
- Abenikorik gabe: alderdien arteko adostasunik lortzen ez denean.
- Ondorioz gabe: demandatutako alderdi bat edo gehiago aurkezten ez direnean.

in Conciliation

Obligatory attempts to reach an agreement between the interested parties in a conflict between workers and companies on subjects deriving from the contract of employment. They are aimed at obtaining a free and negotiated agreement by the interested parties and avoid lawsuits at the Social Courts. Conciliation may be individual or collective. Terminated acts of conciliation include the following kinds of resolution: With agreement. When an agreement exists between the parties. Without agreement. When no agreement exists between the parties. Attempts without effect. When one or both of the parties fails to appear.

concordancia

eu komuntadura

in concordance

confianza

eu konfiantza

in confidence

conglomerado

eu konglomeratu

in cluster

conjunto difuso

eu multzo lauso

in fuzzy set

Consumo de Capital Fijo

Valor de la depreciación experimentada por el capital fijo, durante el período considerado, como consecuencia de su uso normal y la obsolescencia previsible. Incluye una provisión para pérdidas de bienes de capital fijo como consecuencia de daños accidentales asegurable.

eu Kapital finkoaren kontsumoa

Aztertutako denboraldian kapital finkoak galdu duen balioa, hau da, erabilera normalaren eta aurreikusgarria den zaharkitzearen ondorioz galdu duena.

- Istripu-kalte asegugarrien ondorioz gertatzen diren kapital finkoko galeretarako hornidura bat ere sartzen da.

in Fixed Capital Consumption

Includes the depreciation value affecting fixed capital during the period under consideration, as a result of normal use and foreseeable obsolescence. It includes a provision for the loss of fixed capital goods as a result of accidental insurable damage.

Consumo Familiar Interior

Compra en la región por parte de las economías domésticas de todos aquellos bienes y servicios utilizados para satisfacción directa de sus necesidades. En esta columna también se incluye la adquisición de bienes de consumo duradero (automóviles, electrodomésticos, reparación de vivienda, etc.), ya que en el caso de las economías domésticas sólo se consigna como inversión la adquisición de viviendas.

eu Barneko familia-kontsumoa

Etxeko ekonomia batek zuzenean bere premiak asetzeko erabiliko dituen ondasun eta zerbitzu guztiak bere eskualdearen barruan erostea. Zutabe horretan sartzen dira, berebat, kontsumo iraunkorreko ondasunak erostea ere (automobilak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak, etab.), etxeko ekonomien kasuan etxebizitza erostea bakarrik sartzen baita inbertsioen sailean.

in Domestic Family consumption

Refers to purchase in the region by household economies of all those goods and services used to directly satisfy their needs. This column also includes the purchase of durable consumer goods (automobiles, household appliances, house repairs, etc) as in the case household

economies the only investment registered is the purchase of housing.

Consumo Final Interior

Suma del Consumo Familiar Interior y el Consumo Público.

eu Barneko azken kontsumoa

Barneko familia-kontsumoaren eta kontsumo publikoaren arteko batura.

in Final domestic consumption

Corresponds to the sum of Domestic Family consumption and Public consumption.

Consumo intermedio

Valor de todos los bienes y servicios corrientes, diferentes de los bienes de capital fijo, consumidos en el período considerado, tales como las materias primas y otros aprovisionamientos, las subcontratas y los gastos en servicios exteriores. Se excluye el IVA soportado deducible por operaciones corrientes.

eu Bitarteko kontsumoa

Aztertutako denboraldian kontsumitzen diren kapital finkoko ondasunez bestelako ondasun eta zerbitzu arrunt guztien balioa. Adibidez, lehengaien eta bestelako hornikuntzen balioa, azpikontratena eta kanpoko zerbitzuetako gastuena. Kanpoan uzten da eragiketa arruntengatik sortzen den BEZ jasan kengarria.

in Intermediate consumption

This represents the value of all current goods and services, as opposed to fixed capital goods, consumed in the period under consideration, such as raw materials and other supplies subcontracted work and expenditure on external services. Deductible VAT on current operations is excluded.

Consumo Público

Servicios procurados por las Administraciones Públicas, que no van dirigidos a su venta directa. Su financiación se obtiene vía ingresos de origen fiscal, principalmente. Estos servicios benefician a todas las unidades sin poder determinar exactamente en que medida lo hacen a cada unidad en particular.

eu Kontsumo publikoa

Administrazio publikoen eskutik etorritako zerbitzu guztiak, zuzenean saltzen jartzen ez direnak. Zerga bidez lortutako sarrerekin egiten da, nagusiki, zerbitzu horien finantzaketa. Unitate guztientzat izaten dira zerbitzu horiek onuragarri, eta ezin da esan unitate bakoitzari, zehazki, zenbateko mesedea egiten dioten.

in Public consumption

Includes those services secured by the Public Administrations which are not to be sold directly. Finance is obtained via income of a tax origin, mainly. These services benefit all the units without it being possible to determine exactly to what extent this applies to each unit in particular.

Contaminación atmosférica

En la legislación española (Ley 381/1972, de 22 de diciembre) se define por tal "la presencia en el aire de materias o formas de energía que impliquen riesgo, daño o molestia grave para las personas y bienes de cualquier naturaleza".

eu Kutsadura atmosferikoa

Espainiako legeriaren arabera (abenduaren 22ko 381/1972 Legea): "pertsontentzat eta edozein eratako ondasunentzat arrisku, kalte edo eragozpen larria sortzen duten gaiak edo energia-formak airean izatea".

in Atmospheric pollution

In Spanish legislation (Law 381/1972, of 22nd December) it is defined as "the presence in the air of material or forms of energy that imply risk, danger or serious problems for persons or goods of any kind".

Contaminantes atmosféricos

Distintas clases de materias o energías causantes de la contaminación atmosférica. Los sensores de la Red de Vigilancia sólo controlan, de forma desigual, algunos de los parámetros principales de la contaminación, que son:

- - Dióxido de azufre (SO₂)>
- - Partículas sedimentales (P.S.)

- Partículas en suspensión (Humos)
- Oxidos de nitrógeno (NOx)
- Monóxido de carbono (CO)
- Ozono (O3)
- Hidrocarburos
- Plomo.

eu Kutsatzaile atmosferiko

Airearen kutsadura eragiten duten hainbat motatako gaiak edo energiak.

- Zaindaritza-sareko sentsoreek kutsaduraren parametro nagusi batzuk bakarrik kontrolatzen dituzte, eta ez denak berdin. Hauek dira parametro horiek:

- Sufre dioxidoa (SO2)
- Jalkin-partikulak (J.P.)
- Esekitako partikulak (Keak)
- Nitrogeno oxidoak (NOx)
- Karbono monoxidoa (CO)
- Ozonoa (O3)
- Hidrokarburoak
- Beruna.

in Atmospheric pollutants

Are the different kinds of materials or energies causing atmospheric pollution. The Surveillance Network sensors only monitor, in a variable way, some of the main parameters of pollution, which are: - Sulphur dioxide (SO2) - Sedimentary particles (P.S.) - Particles in suspension (Smoke) - Nitrogen oxide (NOx) - Carbon monoxide (CO) - Ozone (O3) - Hydro-carbides - Lead.

conteo

eu kontaketa

in counting

convergencia casi segura

eu konbergentzia ia ziur

in almost certain convergence

convergencia en ley

eu legezko konbergentzia

in convergence in law

convergencia en probabilidad

eu probabilitatezko konbergentzia

in convergence in probability

corrección

eu zuzenketa

in correction

corrección de Yates para continuidad

corrección por continuidad de Yates

eu Yates-en jarraitutasun-zuzenketa

in Yates' correction for continuity

corrección del sesgo

eu alborapenaren zuzenketa

in correction for bias

corrección por agrupamiento de Sheppard

corrección de Sheppard

eu Sheppard-en taldekatze-zuzenketa

in Sheppard's correction

correlación

eu korrelazio

in correlation

correlación biserial

eu korrelazio biserial

in biserial correlation

correlación biserial puntual

eu korrelazio biserial puntual

in point biserial correlation

correlación cruzada

eu korrelazio gurutzatu

in cross-correlation

correlación de rangos

eu heinen korrelazio

in rank correlation

correlación interclase

eu klase arteko korrelazio

in interclass correlation

correlación intraclase

eu klase barneko korrelazio

in intraclass correlation

correlación lineal

eu korrelazio lineal

in linear correlation

correlación múltiple

eu korrelazio anizkoitz

in multiple correlation

correlación negativa

eu korrelazio negatibo
in negative correlation

correlación no lineal

eu korrelazio ez-lineal
in non-linear correlation

correlación nula

eu zero korrelazio
in zero correlation

correlación parcial

eu korrelazio partzial
in partial correlation

correlación positiva

eu korrelazio positibo
in positive correlation

correlación retardada

correlación con decalaje

eu atzerapen-korrelazio
in lag correlation

correlación serial

eu serie arteko korrelazio
in serial correlation

correlación tetracórica

eu korrelazio tetrakoriko
in tetrachoric correlation

Cotizaciones sociales

Cargas sociales satisfechas por el empleador, excepto las incluidas en el punto anterior. Se consideran como tales no sólo las del sistema de Seguridad Social a cargo de la empresa, sino también las cuotas a Mutualidades y a Entidades de Previsión Social en concepto de seguros sociales. También se incluyen las aportaciones a sistemas complementarios a pensiones.

eu Kotizazio sozialak

Enplegatzaileak ordaindu behar dituen gizarte-kargak, aurreko puntuan sartu direnak salbu. Halakotzat hartzen dira enpresak ordaindu beharreko Gizarte-Segurantzaren sistemari dagozkionak, eta baita mutualitate eta aurreikuspen sozialeko erakundeei gizarte-aseguru gisa ordaintzen zaizkienak ere. Pentsioak osatzeko sistemetarako egiten diren ekarpenak ere hemen sartzen dira.

- Ez dakigu 'aurreko puntu' hori zein izan litekeen.

in Social contributions

This includes the social contributions made by the employer, except those included in the previous section. These are not only the payments made by the employer to the Social Security System, but also payments made to Friendly Societies and Social Provision Entities as social insurance. Payments to supplementary pension schemes are also included.

Cotizaciones Sociales a Cargo del Empleador

Cargas sociales satisfechas por las empresas, excepto las incluidas en el punto anterior. Se consideran como tales, no sólo las del sistema de Seguridad Social, sino también las cuotas a Mutualidades y a Entidades de Servicios Sociales en concepto de seguros sociales.

eu Enplegatzaillearen kargurako kotizazio sozialak

Enpresek ordaintzen dituzten gizarte-kargak, aurreko puntuan sartu direnak salbu. Halakotzat hartzen dira, Gizarte-Segurantzaren sistemakoak ez ezik, mutualitateei eta gizarte-zerbitzuetako erakundeei gizarte-aseguru gisa ordaintzen zaizkien kuotak ere. Ez dakigu 'aurreko puntu' hori zein izan litekeen.

in Social Contributions Paid by the Employer

Include social costs met by companies, except those included in the above section. Such costs are not only those of the Social Security system, but also the quotas paid to Mutual Companies and Social Services bodies for social security services.

covarianza

eu kobariantza

in covariance

Crecimiento vegetativo

Aumento o descenso de la población que se produce como resultado de la diferencia entre nacidos vivos y defunciones, exclusivamente.

eu Hazkunde begetatiboa

Biztanleria-kopuruaren gorakada edo beherakada, hau da, hildakoen eta bizirik jaiotakoen arteko aldearen ondorioa.

in Population growth

Indicates the increase or decrease in the population produced as a result of the difference between live births and deaths, exclusively.

critério de aceptación

eu onarpen-irizpide

in acceptance criterion

critério de entropía

eu entropia-irizpide

in entropy criterion

critério de rechazo

eu baztertze-irizpide

in rejection criterion

critério maximín

eu maximin irizpide

in maximin criterion

critério minimax

eu minimax irizpide

in minimax criterion

cuadrado latino

eu karratu latindar

in latin square

cuantil

eu kuantil
in quantile

cuartil

eu kuartil
in quartile

cuartil inferior

eu beheko kuartil
in lower quartile

cuartil superior

eu goiko kuartil
in upper quartile

cubo OLAP

eu OLAP kubo
in OLAP cube

CUCI

Clasificación Uniforme para el Comercio Internacional, Revisión 3.

eu CUCI

Nazioarteko Merkataritzako Sailkapen Uniformea, 3. berrikuspena.

in CUCI

Uniform Classification for International Commerce, 3rd Revision.

Cuenta de capital

Cuenta que registra las operaciones ligadas a las Inversiones en activos no financieros y las Transferencias de capital, que se consideran como operaciones de distribución del patrimonio.

- En empleos figuran los diversos tipos de Inversión en activos no financieros, así como las Transferencias de capital efectuadas. En recursos el Ahorro bruto y las Transferencias de capital recibidas. Su saldo (N.5) es la Capacidad (+) o necesidad (-) de financiación. Se establece para el conjunto de la economía y los sectores institucionales.

eu Kapital-kontua

Kapital-transferentziekin eta aktibo ez-finantzarioetako inbertsioekin lotutako eragiketak -hain zuzen, ondarea banatzeko eragiketatzat hartzen direnak- erregistratzen dituen kontua.

- Erabilerak sailean, aktibo ez-finantzarioetako inbertsio-mota guztiak sartzen dira, baita egindako kapital-transferentziak ere. Baliabideak sailean, aldiz, aurrezki gordina eta hartutako kapital-transferentziak. Kontuaren saldoa (N.5) finantzatzeko duen ahalmena (+) edo premia (-) izaten da. Ekonomiaren multzo osoarentzat eta erakunde-sektore bakoitzarentzat ezartzen da.

in Capital account

Registers transactions linked to investments in non finance assets and Capital Transfers that are considered to be capital distribution transactions. In assets this refers to different types of Investment in non finance assets, as well as Capital Transfers carried out. In resources it refers to gross Saving and capital Transfers received. The balance (N.5) is the Capacity (+) or need (-) of finance. It is established for the economy as a whole and the institutional sectors.

Cuenta de explotación

Cuenta que registra las operaciones de distribución que están directamente ligadas al proceso de producción. Figuran en Recursos el Valor añadido bruto a precios de mercado y las Subvenciones de explotación; sus Empleos son los Impuestos ligados a la producción y la Remuneración de asalariados. Su saldo (N.2) es el Excedente bruto de explotación. Deduciendo a éste el Consumo de capital fijo, se obtiene

el Excedente neto de explotación, que corresponde a las rentas de la propiedad y de la empresa, obtenidas de la producción. Se establece para el total de la economía, por ramas y por sectores institucionales.

eu Ustiapen-kontua

Zuzenean produkzio-prozesuarekin lotuta dauden banaketako eragiketak erregistratzen dituen kontua. Baliabideak sailean, merkatu prezioetan adierazitako balio erantsi gordina eta ustiapeneko diru-laguntzak agertzen dira; erabilerak sailean, berriz, produkzioarekin lotutako zergak eta soldatakoen ordainketa. Kontu honen saldoa (N.2) ustiapeneko soberakin gordina izaten da. Soberakin horri kapital finkoaren kontsumoa kenduz gero, ustiapeneko soberakin garbia ateratzen da, hau da, produktiotik ateratzen diren jabetzaren eta enpresaren errenitei dagokiena. Ekonomiaren multzo osoarentzat, adar bakoitzarentzat eta erakunde-sektore bakoitzarentzat ezartzen da.

in Operating account

Registers distribution operations that are directly linked to the production process. Under the heading Resources we find Gross value added at market prices and operating subsidies; its assets are taxes linked to production and Payments to salaried employees. The balance (N.2) is the Gross Operating Surplus. By deducting the consumption of fixed capital, we obtain the Net Operating Surplus, which corresponds to the revenue from property and the company, obtained from production. This is established for the whole economy, by branches and institutional sectors.

Cuenta de producción

Cuenta que recoge las operaciones del proceso de producción propiamente dicho. Tiene en Recursos la Producción y en Empleos el Consumo intermedio. Su saldo (N.1) es el Valor añadido bruto a precios de mercado. Deduciendo de éste el Consumo de capital fijo, se obtiene el Valor añadido neto a precios de mercado. Se establece para el conjunto de la economía, por rama y también por sectores institucionales.

eu Produkzio-kontua

Hertsiki produkzio-prozesuko eragiketak jasotzen dituen kontua. Baliabideak sailean, produkzioa jasotzen du, eta erabilerak sailean, berriz, bitarteko kontsumoa. Kontu honen saldoa (N.1) balio erantsi gordina izaten da, merkatu-prezioetan adierazita. Balio horri kapital finkoaren kontsumoa kenduz gero, balio erantsi garbia ateratzen da, merkatu-prezioetan adierazita. Ekonomiaren multzo osoarentzat, adar bakoitzarentzat eta erakunde-sektore bakoitzarentzat ezartzen da.

in Production account

Refers to production process operations. Resources include Production and Assets include intermediate consumption. The balance (N.1) is the Gross Value Added at market prices. By deducting from this the consumption of fixed capital, we obtain the Net Value Added at market prices. It is established for the whole of the economy, by branch and also by institutional sectors.

Cuenta de renta

Cuenta que registra las operaciones de distribución y redistribución de rentas (Intereses, Beneficios distribuidos, Transferencias corrientes) que se efectúan entre los sectores de la economía. La remuneración de asalariados que ya aparecía en los empleos de la Cuenta de Explotación reaparece, ajustada con los flujos de salarios con el Resto del mundo en recursos. La cuenta tiene como saldo (N.3) la Renta bruta disponible, que si se deduce de ésta el consumo de capital fijo se obtendrá la renta neta disponible. Se establece para el conjunto de la economía y para los sectores institucionales.

eu Errenta-kontua

Ekonomiako sektoreen artean errentak banatzeko eta birbanatzeko egiten diren eragiketak (interesak, banatutako mozkinak, transferentzia arruntak) erregistratzen dituen kontua. Lehendik ustiapen-kontuko erabileren sailean ere azaltzen zen soldatakoen ordainketa berriz azaltzen da hemen, baliabideak sailean azaltzen diren munduaren gainerakoekiko alokairu-fluxuekin doituta. Kontuaren saldoa (N.3) errenta gordin erabilgarria izaten da, eta, errenta horri kapital finkoaren kontsumoa kentzen bazaio, errenta garbi erabilgarria aterako da. Ekonomiaren multzo osoarentzat eta erakunde-sektore bakoitzarentzat ezartzen da.

in Income account

Registers distribution and redistribution of income transactions (Interest, distributed Profit, current Transfers) which are carried out in sectors of the economy. The remuneration of employees which already appears in employment of the Operation Account reappears, adjusted with salary flows with the Rest of the world in resources. The balance (N.3) of the account is the gross available Income, from which we deduct the consumption of fixed capital to obtain the net available income. It is established for the whole economy and for the institutional sectors.

Cuenta de utilización de renta

Cuenta que muestra cómo se reparte la Renta bruta disponible entre Consumo final y Ahorro. Su saldo (N.4) es el Ahorro bruto y deduciendo de éste el Consumo de capital fijo, se obtiene el Ahorro neto. Se establece para el conjunto de la economía y para los sectores institucionales.

Errenta-erabilpenaren kontua

eu

Errenta gordin erabilgarria azken kontsumoaren eta aurrezkiaren artean nola banatzen den azaltzen duen kontua. Kontuaren saldoa (N.4) aurrezki gordina izaten da, eta, hari kapital finkoaren kontsumoa kenduz, aurrezki garbia ateratzen da. Ekonomiaren multzo osoarentzat eta erakunde-sektore bakoitzarentzat ezartzen da.

in Use of income account

Shows how gross available Income is distributed between final consumption and Saving. The balance (N.4) is gross Saving and by deducting the consumption of fixed capital, we obtain the net Saving. It is established for the whole of the economy and for the institutional sectors.

Cuenta financiera

Cuenta que registra las variaciones de los diferentes tipos de activos y pasivos financieros. Su saldo (N.6), denominado Saldo de activos y pasivos financieros, debería en principio corresponder al saldo de la Cuenta de Capital.

eu Finantza-kontua

Aktibo eta pasibo finantzarioetako mota guztien aldakuntzak erregistratzen dituen kontua. Kontuaren saldoak (N.6), aktibo eta pasibo finantzarioen saldoa deitzen denak, kapital-kontuaren saldoaren parekoa izan beharko luke, printzipioz.

in Finance account

Registers the variations in different types of financial assets and liabilities. The balance (N.6), denominated financial assets and liabilities balance, must in principal correspond to the balance of the Capital Account.

curva acampanada

curva campaniforme

eu ezkila-formako kurba

in bell-shaped curve

curva de aproximación

curva de ajuste

eu hurbilketa-kurba

in approximation curve

curva de concentración

eu kontzentrazio-kurba

in curve of concentration

curva de crecimiento

eu hazkunde-kurba

in growth curve

curva de distribución

eu banaketa-kurba

in distribution curve

curva de Gauss

curva normal

eu kurba normal

in normal curve

curva de probabilidad

eu probabilitate-kurba

in probability curve

curva de regresión

eu erregresio-kurba

in regression curve

curva normal estandarizada

curva normal tipificada

eu kurba normal estandarizatu

in standardized normal curve

peso estadístico

coeficiente de ponderación

eu haztapen-koeficiente

in weighting coefficient

test de hipótesis

contraste de hipótesis

eu hipotesi-kontraste

in hypothesis testing